

TURISMO ESKAINTZA



Tren berdeak berriz ere Hernaniko kaleak eta inguruak zeharkatuko ditu txotx denboraldiak irauten duen bitartean.

Bost aukera turistarentzat

- Aurten berria izango da ostiraletako %15eko deskontua ostala eta sagardotegia hartzen dituenarentzat.
- Iaz bezala, aukera izango da Hernani Historikoa ezagutu, tren berdean sagardotegien inguruan ibili, eta sagardotegian sagardo probaketa egin eta bazkaltzeko.
- Turismo bulegoa irekita egongo da txotx denboraldian.

HERNANIK gero eta turista gehiago erakartzen du, eta herria ezagutzeko eskaintza ere gero eta oparoagoa dauka. Aurten bost eskaintza behintzat prestatu dituzte Udalak, Behemendik, eta sagardotegile eta ostalariek. Berrikuntza, ostiraletako aukera berezia: lo egiteko lekua eta sagardotegia hartzen dituenari %15eko deskontua egingo zaio.

Horrez gain, Hernaniko Udalak lau aukera eskainiko ditu Hernani eta sagardotegiak ezagutzeko, eta turismo informazio puntua martxan izango da txotx denboraldian.

Deskontua, sagardotegia eta lotarako lekuagatik

Biak batera hartu behar dira, eta erreserbak pentsio edo ostaletan egin beharko dira. Lotarako lekua eta sagardotegia hartzeagatik, ostiraletan,

%15eko deskontua izango dute turistek. Donostialdeko 17 alojamentu eta sagardotegi sartu dira eskaintza honetan; Hernaniko Itxasburu eta Iparragirre sagardotegiak, Zinkoenea pentsioa eta Pardiola nekazal turismoa.

Top esperientzia: historia eta sagardoa, oso osorik

Hernaniko Udalak lau aukera ezberdin eskainiko ditu txotx denboraldiko larunbatetan, eta Aste Santuko ostiraletan. Goiz pasa egiteko eskaintza da; eskaintza oso-oso, nolabait esateko. Hernaniko Kaxko Historikoa ikusi, tren berdean sagardotegi inguruetan ibilbidea egin eta sagardotegian sagardoa dastatuko dute. Ondoren, bazkaria sagardotegian. (Bazkariak Larre-Gain, Iparragirre eta Itxasburu izango dira, eta katak azken bietan).

ERRESERBAK:

Udalak eskaintzen dituen
Top Esperientzia eta Pakete
Turistikoa astebete lehenago
erreserbatzeko:
gurutze-a@hernani.net
943 33 70 28

Astebete lehenago izena eman beharko da. Prezioak: helduek 40 euro, 4-15 urtekoek 23 euro, eta 0-3 urtekoek dohainik. Bost hizkuntza aukeran: euskera, gaztelania, frantsesa, inglesa eta katalana.

Gubxienez 8 pertsona eta gehienez 15 pertsona.

Pakete turistikoa, beste aukera
Aurreko aukera berdina ere

eskainiko da, baina bazkaririk gabe. Kasu horretan, prezioak aldatu egingo dira, noski. Helduek 10 euro, 4-15 urtekoek 5 euro, eta 0-3 urtekoek dohainik.

Erreserbak aurrez egitea gomendatzen da, baina ez da beharrezkoa. Libre dagoen kasuetan, momentuan ere egin liteke. Gubxienez 8 pertsona eta gehienez 20 pertsona.

Tren berdean ibilbidea edo Kaxko Historikoa ezagutu

Beste bi aukera ere emango ditu Udalak, bakoitza bere aldetik. Batetik, tren berdean ibili nahi dutenek, besterik gabe aukera izango dute larunbat arratsalde. Hiru aldiz aterako da tren, eta 23 minutuko bidea egingo du: 16:45-etan (azalpenak euskeraz); 17:15etan (gaztelaniaz); eta 17:45etan (euskeraz). Prezioak:

helduek 2 euro, 4-15 urtekoek euro 1, eta 0-3koek dohainik.

Gainera, besterik gabe Kaxko Historikoa ezagutu nahi dutenek aukera izango dute igandeetan, 12:00etan, azalpenak entzunez Kaxkoa ezagutzeko. Dohainik izango da, eta momentuan azaltzea nahikoa izango da.

Irteera guztiak turismo informazio puntutik (Biteri)
Ibilbide gidatu guztiak Biteri aurretik aterako dira, turismo bulegotik hain zuzen. Gida lanak egingo dituen, aurreko urteetan bezala, Maria Izagirre hernaniarra da, turismo bulegoko langilea.

Turismo bulegoa irekita egongo da txotx denboraldian, Biteri ondoko plazan: larunbatetik (10:15-14:15 / 16:30-19:30) eta igande eta jai egunetan (11:00-15:00). ■